

Zk-2839

AGINDUA, 2000ko ekainaren 30ekoa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena. Honen birtatez, kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubide eta interesak sustatu eta babestearren, toki erakundeei eta haiek sustatutako erakundeei diru laguntzak emateko programa arautzen da.

Aurreko urteetako politikari jarraitzen dio toki erakundeei eta haiek sustatutako erakundeei diru laguntzak emateko Agindu honek. Hartara, erakunde horientzako laguntza linea bat ezarri nahi du, kontsumitzaileen informaziorako udal bulegoetako funtzionamenduak eta jardueren gauzatzeak eragiten dituen gastuei erantzuteko. Orobat, programa honen bidez ordaindu egingo dira kontsumitzaileen informaziorako udal bulegoaren zeregina egiten duten guneak eta zerbitzuak instalatu, eraberritu, zabaldu, hornitu edo lekualdatzeko gastuak ere.

Ekonomia-sustapenerako laguntzaren lineak ezartzen dituen ekainaren 27ko 121/2000 Dekretuan xedatutakoa garatzen du agindu honetan araututako laguntza programak. Dekretu horren lehendabiziko azken xedapenean, dekretu hori garatzeko eta betearazteko behar diren xedapenak emateko ahalmena ematen zaio Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuordeari.

Horren guztiaren ondorioz, hau,

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea

Agindu honen xede da diru laguntzak arautzea; hain zuzen ere, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteko jarduerak egiten dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko toki erakundeei eta haiek sustatutako erakundeei emango zaizkien diru laguntzak.

2. artikulua.– Ekonomia baliabideak

Xedapen honetan araututako laguntzak emateko ekonomia baliabideek sorburu hau izango dute: Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu kredituak. Aurrekontu ekitaldi baten barruan emango diren laguntzen guztizko zenbatekoa ezingo da izan esleitutako kopuru hori baino handiagoa (edo, indarrean den legediari jarraituz aurrekontu aldaketarik onartzuz gero, haren eguneratzearen emaitza baino handiagoa).

3. artikulua.– Onuradunak

Agindu honetan araututako diru laguntzen onuradun, honako haiek izan daitezke: gutxienez egunean lau orduz eta astean hogeitau orduz, kontsumitzaileen informaziorako udal bulegoko (KIUB) zerbitzua duten to-

Nº-2839

ORDEN de 30 de junio de 2000, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa de ayudas económicas destinadas a Entidades Locales y Entidades promovidas por ellas para la Promoción y Defensa de los Derechos e Intereses de Consumidores y Usuarios.

Continuando la política seguida en años precedentes, la presente Orden de concesión de ayudas económicas a Entidades Locales y entidades promovidas por ellas, pretende establecer una línea de apoyo a las mismas para asumir los gastos derivados del funcionamiento y desarrollo de actividades de las Oficinas Municipales de Información al Consumidor, así como los destinados para la instalación, reforma, ampliación, equipamiento o cambio de ubicación de centros y servicios destinados a Oficinas Municipales de Información al Consumidor.

El programa de ayudas regulado en la presente Orden desarrolla lo dispuesto en el Decreto 121/2000, de 27 de junio, por el que se establecen distintas Líneas de Ayudas con Fines de Promoción Económica, en cuya Disposición Final Primera, se faculta al Consejero de Industria, Comercio y Turismo para dictar las disposiciones que sean precisas para su desarrollo y ejecución.

En su virtud,

DISPONGO:

CAPÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.– Objeto

La presente Orden tiene por objeto regular la concesión de ayudas económicas a las Entidades Locales del País Vasco así como a las entidades promovidas por ellas, que desarrollen actividades dirigidas a la defensa de consumidores y usuarios.

Artículo 2.– Recursos Económicos

Los recursos económicos destinados a la concesión de las ayudas reguladas en la presente disposición procederán de los correspondientes créditos presupuestarios establecidos al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi. El volumen total de las ayudas a conceder dentro de un ejercicio presupuestario no superará la citada consignación o la que resulte de su actualización, en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente.

Artículo 3.– Beneficiarios

Podrán resultar beneficiarias de las ayudas económicas previstas en la presente Orden aquellas Entidades Locales ubicadas en la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como las entidades promovidas por ellas que

ki erakundeak eta haiek sustatutako erakundeak. Onuradun izateko, orobat, beharrezko da izaera bereko diru laguntzak edo laguntzak direla eta, itzultze edo zigorze espedienteren baten pean ez izatea.

Orobat, onuradun izan daitezke, nahiz eta KIUBik abian jarrita ez eduki, aurten halakoren bat irekitzeko proiektua aurkezten duten toki erakundeak eta haiek sustatutako erakundeak.

4. artikulua. – Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak

Agindu honetan aurreikusitako laguntzak honako kontzeptuek eragindako gastuak ordaintzeko izango dira:

a) Kontsumitzaileen informaziorako udal bulegoaren egitekoa duten gune eta zerbitzuek kontsumitzaileei eta erabiltzaileei argibideak eta prestakuntza ematea, eta argitalpenak argitaratu eta zabaltzea.

b) Kontsumitzaileen informaziorako udal bulegoaren egitekoa duten guneen eta zerbitzuak instalatzea, eraberritzea, zabaltzea, hornitzea edo lekualdatzea.

II. KAPITULUA PROZEDURA

5. artikulua. – Prozedura hastea

Agindu honen bidez araututako diru laguntzen jendaurreko deialdia egingo da urtero. Diru laguntzak ematean, oinarri hauek erabiliko dira: publizitatea, lehia eta objektibotasuna. Merkataritza eta Kontsumo sailburuordearen ebazpen baten bidez egingo da deialdia, eta bertan datu hauek zehaztu behar dira: ekitaldiko gehieneko diru laguntzen kopurua; eskabideak aurkezteko epea eta lekua.

6. artikulua. – Eskabideak

1.– Agindu honetan araututako diru laguntzak jasotzeko eskabideak Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Kontsumo Zuzendaritzara zuzendu behar dira (Donostia-San Sebastián kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz). Eskabidea egiteko, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako industria, merkataritza eta turismoko lurralde bulegoetan jaso daitezkeen eredu arautua erabili behar da.

2.– Merkataritza eta Kontsumo sailburuordearen ebazpen baten bidez urtero egin beharreko deialdian ezarriko da zenbatekoa izango den eskabideak aurkezteko epea, zehatz-mehatz.

cuenten con la existencia de servicio de Oficina Municipal de Información al Consumidor abierto al público al menos cuatro horas diarias y veinte semanales, y que no se hallen incursas en procedimiento alguno de reintegro o sancionador iniciado en el marco de subvenciones o ayudas de la misma naturaleza.

Asimismo podrán ser beneficiarias las Entidades Locales, o entidades promovidas por ellas que, no teniendo una OMIC en funcionamiento, presenten un proyecto de apertura en el presente año.

Artículo 4. – Conceptos subvencionables

Las ayudas previstas en la presente Orden se destinarán a sufragar los gastos que se deriven de los siguientes conceptos:

a) Funcionamiento y realización de actividades de información y formación de los consumidores y usuarios, y de edición y divulgación de publicaciones de Centros y Servicios destinados a Oficinas Municipales de Información al Consumidor (OMIC).

b) Instalación, reforma, ampliación, equipamiento o cambio de ubicación de Centros y Servicios destinados a Oficinas Municipales de Información al Consumidor (OMIC).

CAPÍTULO II PROCEDIMIENTO

Artículo 5. – Iniciación del procedimiento

Las ayudas convocadas en la presente orden serán objeto de convocatoria pública anual y se otorgarán bajo los principios de publicidad, concurrencia y objetividad. La convocatoria se realizará mediante Resolución de la Viceconsejera de Comercio y Consumo y en la misma se determinará el importe de la consignación presupuestaria destinada al otorgamiento de las subvenciones en ese ejercicio, así como la posible actualización de las cuantías establecidas en la presente Orden conforme al IPC, el plazo y lugar de presentación de las solicitudes.

Artículo 6. – Solicitudes

1.– Las solicitudes para acogerse a las ayudas económicas previstas en la presente Orden habrán de dirigirse a la Dirección de Consumo, del Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, sita en la calle Donostia-San Sebastián 1, 01010-Vitoria-Gasteiz, según modelo normalizado que podrá recogerse en las Oficinas Territoriales de Industria, Comercio y Turismo de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa.

2.– El plazo de presentación de solicitudes será el establecido en la convocatoria anual que a tal efecto se realizará mediante resolución de la Viceconsejera de Comercio y Consumo.

3.– Erakundeek, diru laguntza eskatzeko, 1. idatz zatian adierazitako eskabide arautua aurkeztu beharko du, behar bezala beteta eta dagozkion agiriekin batera.

7. artikulua.– Agiriak

1.– Ondorengo agiriak aurkeztu beharko dira eskabide orriarekin batera:

a) Organo aginpidedunak laguntza jasotzea eskatzeko hartutako erabakiaren egiaztagiria. Zehazki zenbateko laguntza eskatzen den agertu behar da.

b) Udal idazkariak edo organo aginpidedunak emandako ziurtagiria, bulegoaren ordutegia azaltzen duena. Datu hauek zehaztu behar ditu: bulegoa zein ordutan egoten den irekita jendearentzat, kontsumitzaile eta erabiltzaileen galderei erantzuteko eta haien erreklamazio nahiz salaketak bideratzeko. Gutxienez egunean lau ordu eta astean hogeitaz beharko dira.

c) Udal idazkariak edo organo aginpidedunak gai honi buruz emandako ziurtagiria: diruz laguntzea eskatzen den jardueretarako beste erakunde batzuei egindako laguntza eskariei buruz, alegia.

d) Halako kontseilurik izanez gero, udal idazkariak edo organo aginpidedunak kontsumoko sektore kontseilua badela adierazteko emandako ziurtagiria. Kontseiluak deialdiaren aurreko urtean egindako lanaren gaineko txostena aurkeztu beharko da.

e) Deialdiaren aurreko urtean KIUBak bideratutako galdera, erreklamazio eta bitartekotzen kopurua jasotzen duen txostena.

f) KIUBak deialdiaren aurreko urtean egindako jardueren oroit idazki xehatua, eta aurrera doan urtean egingo dituen jardueren proiektua.

g) Halakorik egin bada, deialdiaren aurreko urtean egindako ikuskatzeen kopurua jasotzen duen txostena. Ikuskaturiko sektoreak eta lortutako emaitzak zehaztu behar dira.

h) Udal idazkariak edo organo aginpidedunak biztanle kopuruari buruz emandako ziurtagiria. Deialdiaren aurreko urteko abenduaren 31n, KIUBaren lan eremu den udalerrian, mankomunitatean edo ingurunean zegoen biztanle kopurua adierazi behar da.

i) Funtzionamenduko eta jardueretako gastuen aurrekontua, behar bezala xehekatua eta udaleko nahiz organo aginpideduneko kontu-hartzaileak bisatua.

j) KIUBa kontsumitzaile elkarte batekin itundua izanez gero, hitzarmenaren fotokopia aurkeztu behar da. Toki erakundeak elkartari ematen dion ordainaren zenbatekoa jaso behar du.

k) KIUBan haren jardura aurrera eramateko dagoen ekipamenduaren ziurtagiria.

3.– Las Entidades solicitantes de las ayudas económicas, deberán presentar una solicitud normalizada de las indicadas en el apartado 1, debidamente cumplimentada acompañada de la correspondiente documentación.

Artículo 7.– Documentación

1.– La documentación que deberá acompañar a la instancia de solicitud será la siguiente:

a) Certificación del Acuerdo del órgano competente acogiendo a la ayuda, con expresión de la cantidad exacta solicitada.

b) Certificación del Secretario del Ayuntamiento u órgano competente en la que se haga constar el horario en el que la Oficina permanece abierta al público para atender las consultas de consumidores y usuarios y para cursar reclamaciones o denuncias que se les presenten y que deberá ser de al menos cuatro horas diarias y veinte semanales.

c) Certificación del Secretario del Ayuntamiento u órgano competente sobre solicitudes de ayuda a otros organismos para las actividades objeto de subvención.

d) En su caso, certificación del Secretario del Ayuntamiento u órgano competente de la existencia del Consejo Sectorial de Consumo y memoria de lo realizado por el mismo en el ejercicio anterior al de la convocatoria.

e) Informe que recoja el número de consultas, reclamaciones y mediaciones realizadas por la OMIC en el ejercicio anterior al de la convocatoria.

f) Memoria pormenorizada de las actividades desarrolladas por la OMIC en el ejercicio anterior al de la convocatoria y proyecto de actividades a desarrollar en el año en curso.

g) Informe que recoja, en su caso, el número de inspecciones realizadas en el año anterior al de la convocatoria, en el que se especificarán los sectores inspeccionados así como los resultados obtenidos.

h) Certificación del Secretario del Ayuntamiento u órgano competente sobre la población existente a 31 de diciembre del año anterior al de la convocatoria, en el Ayuntamiento, Mancomunidad o Área en la que la OMIC desarrolla sus servicios.

i) Presupuesto debidamente desglosado de gastos de funcionamiento y actividades visado por el interventor del Ayuntamiento u órgano competente.

j) Cuando el servicio prestado por la OMIC sea concertado con una Asociación de Consumidores, deberá adjuntarse copia del convenio correspondiente en el que deberá figurar el importe de la contraprestación que la entidad local satisface a la asociación.

k) Certificación del equipamiento disponible en la OMIC para el desarrollo de su actividad.

1) Udal idazkariak edo organo aginpidedunak emandako ziurtagiria, hau jasotzen duena: KIUBa kontsumo.net sarean (Euskadiko kontsumitzaile eta erabiltzaileari argibideak eta laguntza emateko sarea) sartzeko hizarmena.

2.- Guneak instalatu, eraberritu, zabaldu, hornitu edo lekualdatzeko laguntza eskatuz gero, gainera, honako hauek aurkeztu behar dira:

2.1.- Gunea hornitzeko eskabidea baldin bada, aurrekontu xehekatua, udaleko esku-hartzaileak edo organo aginpidedunak bisatua.

2.2.- Gunea instalatu, eraberritu, zabaldu edo lekualdatzeko izanez gero:

- Organo aginpidedunak proiektu egokia onartzeko hartutako erabakiaren egiaztagiria. Proiektu hori dagokion teknikoak sinatuta egon behar da. Proiektuan, lokalak jendeari behar bezala zerbitzu emateko kondizio egokiak dituela ziurtatzeaz gain, proiektuaren balio ekonomikoa kalkulatu da.

- KIUB berria instalatzeko laguntza eskatzen denean, aurreko paragrafoan adierazitakoaz gain, udalbatzak edo organo aginpidedunak KIUBa sortzeko hartutako erabakia. Erabakian, KIUBa gutxienez 5 urtez lanean mantentzeko asmoa azaldu behar da.

8. artikulua. - Laguntzak kudeatzeko organoa

Kontsumo Zuzendaritzaren ardura da dagokio deialdi honetan araututako laguntzak kudeatzeko lanak egitea.

9. artikulua. - Aurkeztutako eskabide orriko akatsak zuzentzea.

Aurkeztutako eskabidean Kontsumo Zuzendaritzak okerren bat edo zehaztasun eza ikusten badu, eskatzaileari jakinaraziko dio, eta 10 eguneko epea emango dio zuzentzeko. Eta gainera jakinaraziko dio eskabidea bertan behera utzi duela joko dela, baldin eta epe horretan zuzenketak aurkezten ez baditu, horrela agintzen baitu azaroaren 26ko 30/1992 Legeak (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu duen Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea) 71.1 artikuluan.

10. artikulua. - Epaimahai Kalifikatzailea

1.- Aurkeztutako eskabideak aztertu eta balioztatzeko, lau kidez osatutako Epaimahai Kalifikatzailea sortuko da.

- Lehendakaria: Kontsumo zuzendaria.

- Epaimahaikideak: Kontsumoko Arbitraia Batzordeko idazkaria, Azterketa eta Plangintza teknikaria eta Informazio teknikaria.

- Euskal Udallerrien Elkarteak (EUDEL) izendatutako bi ordezkari.

- Idazkari: Kontsumo Zuzendaritzako Prestakuntza-ko teknikaria. Batzordekide izango da.

1) Certificación del Secretario del Ayuntamiento u órgano competente en el que se recoja el compromiso de integración de la OMIC en la red de oficinas de información y atención al consumidor y usuario de Euskadi (kontsumo.net).

2.- Si la ayuda solicitada esta destinada a instalación, reforma, ampliación, equipamiento o cambio de ubicación de centros deberá presentarse además:

2.1.- Presupuesto desglosado visado por el interventor del Ayuntamiento u órgano competente en el caso de que la solicitud sea para equipamiento.

2.2.- Si la solicitud es para instalación, reforma, ampliación o cambio de ubicación:

- Certificación del Acuerdo del Órgano competente por el que se aprueba el proyecto correspondiente firmado por el técnico correspondiente, en el que además de garantizar las condiciones de idoneidad del local para una correcta atención al público, se valorará económicamente el coste del proyecto.

- En el caso de instalación de una nueva OMIC, además de lo señalado en el párrafo anterior, el acuerdo del pleno de la Corporación u Órgano competente en el que se decide crear aquella y el propósito de mantenerla en funcionamiento por un período no inferior a 5 años.

Artículo 8. - Órgano de gestión de las ayudas

Corresponderá a la Dirección de Consumo la realización de las tareas de gestión de las ayudas previstas en la presente convocatoria.

Artículo 9. - Subsanación de defectos en la solicitud presentada

Si la Dirección de Consumo advirtiera en la solicitud presentada la existencia de algún defecto o inexactitud, lo comunicará al solicitante, concediéndole un plazo de 10 días para que proceda a su subsanación, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, de conformidad con lo establecido en el artículo 71.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

Artículo 10. - Tribunal Calificador

1.- Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá un Tribunal Calificador compuesto por los siguientes miembros:

- Presidente, Director de Consumo.

- Vocales, el Técnico de Estudios y Planificación, el Técnico de Información y la Secretaria de la Junta Arbitral de Consumo.

- 2 representantes designados por la Asociación de Municipios Vascos (EUDEL).

- Secretario, el Técnico de Formación de la Dirección de Consumo.

2.- Epaimahai horrek dagokion ebazpen proposamena igorriko dio Merkataritza eta Kontsumo sailburuordeari, diru laguntzen zenbatekoa zehazteko irizpideak kontuan hartuta.

11. artikulua.- Laguntzen zenbatekoa

1.- Aurrekontuko kreditu jakin bat hornituko da (eta urteko deialdiko ebazpenean agertuko), honako alderdi hauek direla eta sortutako gastuetarako: kontsumitzaileen informaziorako udal bulegoaren zeregina egiten duten gune eta zerbitzuen funtzionamendua eta jarduerak; edota halako bulegoak instalatu, eraberritu, zabaldu, hornitu edo lekualdatzea.

2.- Onuradun bakoitzak, funtzionamenduagatik eta jarduerak egiteagatik, gehienez, 8.500.000 pezeta (51.086,03 euro) jaso ditzake.

Funtzionamenduak eta jarduerak egiteak eragindako gastuei dagokienez, gerta daiteke arazo hau: dagozkion ehunekoak (artikulu honetako 3. puntua) eta mugak (artikulu honetako aurreko paragrafoa eta 4. puntua) aplikatu ondoren, diru laguntzen zenbateko osoa jarritako aurrekontua baino handiagoa izatea. Halakotan, onuradun guztien artean hainbanatuko da.

Bulegoa instalatu, eraberritu, zabaldu, hornitu edo lekualdatzeak eragindako gastuei dagokienez, gerta daiteke arazo hau: dagozkion ehunekoak (artikulu honetako 3. puntua) eta mugak (artikulu honetako 4. puntua) aplikatu ondoren, diru laguntzen zenbateko osoa jarritako aurrekontua baino handiagoa izatea. Halakotan, onuradun guztien artean hainbanatuko da.

3.- Onartutako diru laguntzen ebazpen proposamena apailatzeko, ondorengo irizpide hauek hartuko dira kontuan (aurkeztu den eta Epaimahai Kalifikatzaileak onetsi duen aurrekontuari aplikatuko zaizkio):

- a) Aurreko urtean jasotako galdera eta erreklamazioen kopurua 30 puntu.
- b) Aurreko urtean egindako bitartekotzen kopurua 15 puntu.
- c) Egunean zenbat orduz dagoen zabalik kontsumitzaileari laguntzeko 15 puntu.
- d) Aurrera doan urtean egin asmo dituen jarduerak 10 puntu.
- e) 1999 urtean egindako jarduerak 5 puntu.
- f) 1999an egindako ikuskatzeen kopurua 5 puntu.
- g) KIUBa zenbat biztanleri zerbitzu emateko den 5 puntu.
- h) KIUBean dauden tresnak 5 puntu.

2.- Dicho Tribunal, en base a los criterios de cuantificación de las subvenciones elevará la oportuna propuesta de resolución a la Viceconsejera de Comercio y Consumo.

Artículo 11.- Cuantía de las subvenciones

1.- Para sufragar los gastos derivados del funcionamiento y realización de actividades de los Centros y Servicios destinados a Oficinas Municipales de Información al Consumidor se dispondrá de un crédito presupuestario concreto que se incluirá correspondiente resolución anual de convocatoria.

2.- La cuantía máxima que un beneficiario podrá obtener por el concepto de funcionamiento y realización de actividades será de 8.500.000 de pesetas (51.086,03 Euros).

En relación con los gastos derivados del funcionamiento y realización de actividades, si una vez aplicados los porcentajes descritos en el punto 3 de este artículo, así como la limitación prevista en el párrafo anterior y en el punto 4 del presente artículo, el importe total de las subvenciones supera el crédito presupuestario disponible, se aplicará a todos los beneficiarios el correspondiente prorrateo.

En relación con los gastos derivados de la instalación de nuevas oficinas, reforma, ampliación, equipamiento o cambio de ubicación de las existentes, si una vez aplicados los porcentajes descritos en el punto 3 de este artículo, así como la limitación prevista en el punto 4 del mismo, el importe total de las subvenciones supera el crédito presupuestario disponible, se aplicará a todos los beneficiarios el correspondiente prorrateo.

3.- Al objeto de elaborar la propuesta de resolución de las subvenciones concedidas, se tendrán en cuenta los siguientes criterios, que se aplicarán al presupuesto presentado y aprobado por el Tribunal Calificador:

- a) Número de consultas y reclamaciones recibidas en el año anterior 30 puntos.
- b) Número de mediaciones realizadas en el ejercicio anterior 15 puntos.
- c) Número de horas al día en que se atiende al consumidor..... 15 puntos.
- d) Actividades previstas a desarrollar en el año en curso..... 10 puntos.
- e) Actividades desarrolladas a lo largo del año 1999 5 puntos.
- f) Número de inspecciones realizadas en 1999 5 puntos.
- g) Volumen de población en la que la OMIC presta sus servicios..... 5 puntos.
- h) Equipamiento disponible en la OMIC 5 puntos.

- i) Kontsumoko sektore kontseilua
izatea eta lanean aritzea 5 puntu.

KIUB berria instalatzeko denean, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- a) KIUBa zenbat biztanleri zerbitzu emateko den 40 puntu.
b) KIUBeko tresnak 25 puntu.
c) Egunean zenbat orduz dagoen zabalik kontsumitzaileari laguntzeko 15 puntu.
d) 2000 urtean egin asmo dituen jarduerak 10 puntu.
e) Kontsumoko sektore kontseilua izatea eta 5 puntu.

Balioespen horiek 5 puntu handi daitezke, baldin kontsumitzaileen informaziorako udal bulegoa udal mankomunitate bateko zerbitzua bada.

4.- Onuradun batek ezin izango du jaso, inolaz ere, aurkeztutako eta kontuan hartutako aurrekontuaren %70eko baino zenbateko handiagoa.

12. artikulua. - Bestelako laguntza edo diru laguntzekiko bateragarritasuna

Deialdi honetan aurreikusten diren diru laguntzak bateragarri izango dira erakunde publikoek nahiz pribatuek helburu berarekin ematen dituzten beste laguntzekin, horren ondorioz neurritz gaineko inantzaketa gertatzen ez bada. Neurritz gaineko finantzaketa gertatuz gero, diru laguntzaren zenbatekoa dagokion neurriraino murriztuko da.

13. artikulua. - Ebazpena

1.- Merkataritza eta Kontsumo sailburuordeak, Epaimahai Kalifikatzaileak emandako proposamena ikusi ondoren, aurkeztutako eskabideak ebartziko ditu. Horretarako, bi hilabeteko epea izango du, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denetik hasita. Ebazpena esleipendunei jakinaraziko zaie, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.- Laguntza emateko ebazpenean honako hauek adieraziko dira: laguntzaren xedea eta zenbatekoa; ordaintzeko era eta epeak; egiaztatzeko era; eta onartutako laguntzen zenbatekoa zein xedapenetan oinarritzen den.

3.- Sei hilabeteko epea gainditu baino lehen, ebazpen hori eman eta interesdunari jakinarazi behar zaio. Dagokion deialdi ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da sei hilabeteko epe hori.

4.- Eskatzaileei diru laguntzak emateko ebazpenak banan-banan jakinarazteaz gain, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian onuradunen zerrenda eta emandako diru laguntzen zenbatekoa argitaratuko dira, Eus-

- i) Existencia y funcionamiento del Consejo Sectorial de Consumo 5 puntos.

En el caso de instalaciones de nuevas OMICs los criterios que se tendrán en cuenta serán los siguientes:

- a) Volumen de población en la que la OMIC prestará sus servicios 40 puntos.
b) Equipamiento de la OMIC 25 puntos.
c) N.º de horas al día de atención al consumidor 15 puntos.
d) Actividades previstas a desarrollar en el año 2000 10 puntos.
e) Existencia del Consejo Sectorial de Consumo 5 puntos.

Estas valoraciones podrían ser incrementadas en 5 puntos en el caso de que el servicio de Oficina Municipal de Información al Consumidor se desarrolle en el ámbito de una mancomunidad de municipios.

4.- En ninguno de los casos la cuantía que un beneficiario podrá obtener por estos conceptos podrá ser superior al 70% del presupuesto presentado y tenido en cuenta.

Artículo 12. - Compatibilidad con otras subvenciones o ayudas

Las subvenciones previstas en la presente convocatoria son compatibles con aquellas otras que, teniendo el mismo fin, pudieran ser otorgadas por cualquier otra institución pública o privada, siempre que de ello no se derive sobrefinanciación. En caso de producirse ésta se reducirá el importe de la subvención hasta el límite máximo que corresponda.

Artículo 13. - Resolución

1.- La Viceconsejera de Comercio y Consumo, a la vista de la propuesta elevada por el Tribunal Calificador, resolverá las solicitudes presentadas, en el plazo de dos meses a contar desde la finalización del plazo de presentación de solicitudes. Dicha Resolución será notificada a los adjudicatarios y publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.- En la resolución de concesión de la ayuda se hará constar el objeto y el importe de la misma, la forma y los plazos de pago, así como la forma de justificación y la disposición a cuyo amparo se hubiere otorgado la cuantía de las ayudas concedidas.

3.- La citada resolución deberá dictarse y ser notificada en un plazo máximo de 6 meses contado desde el día siguiente a la publicación de la correspondiente convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco.

4.- Sin perjuicio de la notificación individual a los solicitantes de las resoluciones de concesión de ayuda, se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco la relación de los beneficiarios e importe de subvención con-

kal Autonomia Erkidegoko Herri Ogasun Nagusiaren Antola Arauei buruzko Legearen 49.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

5.- Ebazpen horrek ez du administrazio bidea amaitzen, eta haren aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari, azaroaren 26ko 30/1992 Legean (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea) xedatutako epea eta era errespetatuz.

6.- Azaroaren 26ko 30/1992 Legeko (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena) 44. artikuluan xedatutakoarekin bat, ebazpena emateko epea amaitu, eta interesdunari ez bazaio horren berri eman, laguntza eskabidea ukatu egin dela ulertu beharko da.

14. artikulua.- Ordainketa

Onartutako diru laguntzak honela ordainduko dira:

- Onartutako zenbatekoaren %75, aldeko ebazpena ematen den uanean.

- Gainerako %25ak, gastuak justifikatu eta Ebazpenean jarritako baldintzak betetakoan.

15. artikulua.- Justifikazioa

1.- Emandako diru laguntza justifikatzeko, onuradunak, 2001-03-31 baino lehen, agiri hauek aurkeztu behar ditu:

a) Onartutako laguntza funtzionamendu eta jardue-ra gastuetarako izan bada, guztira egindako gastuari buruz organo aginpidedunak emandako egiaztagiria.

b) KIUBa instalatu, eraberritu, zabaldu, hornitu edo lekualdatzeak eragindako gastuak ordaintzeko laguntza izan bada, agiri hauek: I) egindako gastu osoari buruz organo aginpidedunak emandako egiaztagiria. II) Bereganatutako ondasun higigarrien zerrendaren egiaztagiria; ondasun horiek, epe mugagabe baterako, kontsumitzaileak babesteko zerbitzurako erabiliko direla ziurtatu behar du. III) Egindako gastuaren faktura.

c) KIUBak 2000 urtean egindako jardueren bukarako txostena.

2.- Gerta daiteke justifikazioan ageri diren gastuak, diru laguntza emateko aurkeztu eta kontuan hartu zen aurrekontutik desbideratzea. Desbideratze hori %15ekoa baino handiagoa eta %25ekoa edo txikiagoa denean, onartutako diru laguntza aldatzeko ebazpen egokia emanez, laguntza hori txikitu daiteke. Hartara, diru laguntza kalkulatzeko aurrekontuko kopuruari aplikatu zitzaion ehuneko bera aplikatuko zaio benetan gastatutako kopuruari.

%25ekoa baino desbideratze handiagoa izateak diru laguntza jasotzeko eskubidea galtzea ekarriko du (Agindu honetako 17. artikulua). Hala ere, laguntza

cedida, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 49.2 del Texto refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

5.- La Resolución que recaiga no agotará la vía administrativa, pudiendo interponerse recurso de alzada ante el Consejero de Industria, Comercio y Turismo en el plazo y forma establecidos por la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por Ley 4/1999.

6.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 44 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por Ley 4/1999, una vez transcurrido el plazo previsto para dictar resolución sin que ésta se haya notificado al interesado, podrá entenderse desestimada la ayuda solicitada.

Artículo 14.- Pago

El pago de las subvenciones adjudicadas se hará de la siguiente forma:

- El 75% de la cuantía concedida en el momento en que recaiga la resolución favorable.

- El 25% restante, una vez justificado el gasto y cumplidas las condiciones impuestas en la Resolución.

Artículo 15.- Justificación

1.- Para la justificación de la subvención concedida, el beneficiario deberá presentar antes del 31-03-2001 la siguiente documentación:

a) Si la ayuda concedida ha sido destinada a gastos de funcionamiento y actividades, certificación del órgano competente del gasto total efectuado.

b) Si la ayuda ha sido destinada a sufragar los gastos derivados de la instalación, reforma, ampliación, equipamiento o cambio de ubicación de la OMIC deberá adjuntarse certificación del órgano competente del gasto total efectuado, certificación de inventario de los bienes muebles adquiridos y de su afección, con carácter indefinido, a fines de protección de los consumidores y factura del gasto realizado.

c) Memoria final de las actividades desarrolladas por la OMIC en el año 2000.

2.- Si en la justificación de los gastos se produce una desviación superior al 15% e inferior o igual al 25% respecto al presupuesto presentado y tenido en cuenta para la concesión de la subvención, se procederá, mediante la correspondiente resolución de modificación, a una minoración en la cuantía de la subvención concedida; de tal manera que se aplicará a la cantidad realmente gastada el mismo porcentaje que se aplicó a la cantidad presupuestada para el cálculo de la subvención.

Una desviación superior al 25% dará lugar a la pérdida del derecho a la subvención en los términos establecidos en el artículo 17 de la presente Orden, excep-

ekonomikoa emateko arrazoi izan ziren helburu guztiak bete direla justifikatuz gero, ez da eskubide hori galduko. Halakoetan, diru laguntza txikitu egingo da, aurreko paragrafoan araututako eran.

3.- Diru laguntzaren onuradunak, halakoetan, hila-beteko epean itzuli beharko ditu neurritz gain jasotako kopuruak. Jakinarazpena jasotzen duenetik hasiko da epe hori.

16. artikulua. - Onuradunaren betebeharrak

Agindu honen bidez araututako diru laguntzen onuradunek ondorengo betebeharrak izango dituzte:

a) Emandako diru laguntza onartzea. Hartara, diru laguntza eman zaiola jakinarazteko agiria jasotzen duenetik hamabost egun igarotzean, onuradunek berariaz eta idatziz diru laguntzari uko egin ez badiote, diru laguntza onartu dutela ulertuko da.

b) Jasotako diru laguntza onartutako helburu konkrutarako erabiltzea. Eta, jasotako diru laguntzen zertarakoa fiskalizatzeko dituzten zereginak aurrera eramanez, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatzen dieten informazio oro ematea.

c) Hilero, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailako Kontsumo Zuzendaritzara txosten bat bidaltzea; hain zuzen ere, dagozkien KIUBetan egindako jardueri buruzko xehetasuneko txostena. Horretarako, Kontsumo Zuzendaritzak berak ezarritako ereduari eta prozedurari jarraitu beharko diete.

d) Agindu honen xede diren jarduerekin lotutako jarduera, argitalpen, azterketa eta inkestek Kontsumo Zuzendaritzaren arauzko oniritzia izan beharko dute. Horretarako, garaiz jakinarazi behar da noiz egin, argitaratu edo hedabideetan zabalduko diren.

e) Diruz lagundutako jardueren berri zabaltzean edo, hala badagokio, argitaratzean, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren babesa berariaz agertaraztea. Horretarako, aurreko idatz zatian araututakoa bete beharko da aurretik.

17. artikulua. - Ez betetzeak

Gerta daiteke onuradunak ez betetzea bere betebeharrak, gastuak behar bezala ez justifikatzea, eskabidean azaldu ez bezalako aplikazioa egitea, edo, oro har, Agindu honetan ezarritako baldintzaren bat ez betetzea. Halakoetan, onuradunak diru laguntzak jasotzeko eskubidea galduko du, eta jasotako dirua (dagozkion legezko interesekin batera) Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko dio. Halaxe dago

to en el caso de que se justifique que se han cumplido todos los objetivos para los cuales se concedió la ayuda económica. En este supuesto, se procederá a la minoración de la cuantía de la subvención en la forma prevista en el párrafo anterior.

3.- El beneficiario de la subvención tendrá la obligación de devolver, en su caso, las cantidades percibidas en exceso en el plazo de un mes a contar desde la notificación.

Artículo 16. - Obligaciones del beneficiario

Los beneficiarios de las subvenciones reguladas en la presente Orden, deberán cumplir en todo caso las siguientes obligaciones:

a) Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días tras la fecha de recepción de la comunicación por la que se notifica la concesión de la subvención los beneficiarios no renuncian expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

b) Utilizar la subvención para el concreto destino para el que ha sido concedida, y facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de las subvenciones recibidas.

c) Remitir, mensualmente, a la Dirección de Consumo del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, informe detallado relativo a las actuaciones habidas en las correspondientes Oficinas Municipales de Información al Consumidor, según el modelo y procedimiento establecido por la propia Dirección de Consumo.

d) Las actividades, publicaciones, estudios y encuestas relacionadas con las actividades objeto de esta Orden deberán contar con el preceptivo visto bueno de la Dirección de Consumo para lo cual deberá comunicarse con suficiente antelación la fecha de ejecución, publicación o difusión de las mismas a los medios de comunicación.

e) Hacer constar expresamente el patrocinio del Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, en todas aquellas actividades subvencionadas que conlleven la divulgación, difusión o, en su caso, publicación de las mismas, para lo que será necesario haber dado cumplimiento al precepto establecido en el apartado anterior.

Artículo 17. - Incumplimiento

El incumplimiento de las obligaciones del beneficiario, la falta de justificación de los gastos, una aplicación diferente a la señalada en la solicitud y/o, en general, el incumplimiento de alguno de los requisitos exigidos en la presente Orden, darán lugar a la pérdida del derecho a las subvenciones, debiendo, el beneficiario de la ayuda, reintegrar las cantidades obtenidas con los intereses legales a la Tesorería General del País

araututa bi lege testu hauetan: Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Ogasun Nagusiaren Antola Arauei buruzko Legearen eraberritutako idazkeran, eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. – Agindu honen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsoa ezar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian bi hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Bigarrena. – Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean Agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2000ko ekainaren 30a.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

Zk-2840

AGINDUA 2000ko ekainaren 30ekoa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, Euskal Herriko Txikizkako Udal Merkatuei zuzendutako dirulaguntzen emakida arautzen duena, merkatu horietan egitura-aldaketak egin ditzaten, dagozkien merkatariek edo beren entitate ordezkariak bultzatuta.

Tradizioz, Txikizkako Udal Merkatuek populazioaren hornikuntza bermatu izan dute, eta produktu freskoetan benetako espezialistak izan dira. Banaketaren egiturari eta kontsumitzaileen ohiturei dagokienez izandako aldaketek eragin nabarmena izan dute Txikizkako Udal Merkatuetan, eta une honetan zirkuntantzia berrietara egokitzeko premia antzematen da. Horregatik, beharrezkoa da merkatu horien berregituraketa integralean laguntzea, ikuspegi kuantitatibotik baino gehiago ikuspegi kualitatibotik begiratuta, bai eta merkataritza-enpresen aldetik beren kudeaketa bultzatzea, horren ondoriozko antolamendu-eredu berri bat ezarri.

Txikizkako Udal Merkatuek bizi duten garrantziko une honen aurrean, laguntza batzuk ezarri dira merkatu horiek modernizatzen eta egiturari dagokionez garai berri hauetara egokitzen laguntzearen, betiere hirietako dinamizazioan betetzen duten zeregina kontuan izanik. Txikizkako Udal Merkatuak, beren eragin lokomotorea eta soilik merkataritzaren eremua gaintzen duen eragina ikusita, garrantziko osagai dira Merka-

Vasco, de acuerdo con lo establecido en el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco y el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre.

DISPOSICIONES FINALES

Primera. – Contra la presente Orden podrá interponerse recurso contencioso-administrativo, ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda. – La presente Orden entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 30 de junio de 2000.

El Consejero de Industria, Comercio y Turismo,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

Nº-2840

ORDEN de 30 de junio de 2000, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula la concesión de ayudas económicas a los Mercados Municipales Minoristas del País Vasco para la realización de cambios estructurales en los mismos impulsados por sus comerciantes o sus entidades representativas.

Tradicionalmente, los Mercados Municipales Minoristas han asegurado el abastecimiento de la población siendo verdaderos especialistas en producto fresco. Los cambios en la estructura distributiva y en los hábitos de los consumidores, han incidido de manera determinante en la marcha de los Mercados Municipales Minoristas, siendo preciso en estos momentos una adecuación a las nuevas circunstancias. Por ello, se hace necesario apoyar su reestructuración integral, en un sentido más cualitativo que cuantitativo, e impulsar su gestión por las empresas comerciales, con la consecuente implantación de un nuevo modelo organizativo.

Ante el momento crucial que viven los Mercados Municipales Minoristas, se establecen un conjunto de apoyos con el fin de contribuir a su modernización y adecuación a los nuevos tiempos desde una perspectiva estructural, teniendo también presente el papel de dinamización urbana que representan. Los Mercados Municipales Minoristas, debido a su destacado efecto locomotor y a una influencia que va más allá del campo